

LOTURA MEKANIKOAK LAZOS MECÁNICOS MECHANICAL BONDS

Praktika performatiboak museoan
Prácticas performativas en el museo
Performative practices at the museum

2024.09.27—2024.10.13



Erakusketa eta performance-zikloa
Exposición y ciclo de performances / Exhibition and performance cycle

2024.09.27

18:30

Valeria Maculan
Cuerpo Sonoro (Ensamble)

19:00

Federico Vladimir & Pablo Lilienfeld
Mónica - Episodio 5: Bajo el sol cegador

20:00

Ainara LeGardon
Pausar pulsa

2024.09.28

12:30

Itsaso Iribarren & Germán de la Riva
In between

13:00

Marta Fernández Calvo
Una vajilla, una premonición

18:00

Elena Aitzkoa
Del lago la grieta escucho

19:00

Alejandra Pombo Su
Humedad enmudece

2024.09.29

12:00

Pedro Barateiro
My body, this paper, this fire

12:30

Marc Vives
La fiesta

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak 2023an praktika performatiboan inguruan hasi zuen *Lotura mekanikoak* proiektuaren bigarren edizioa da hau. Lotura mekanikoak erakusketa bat da, eta baita performance ziklo bat ere. Azken horietako batzuk iragankorrak dira, eta beste batzuek, berriz, iraun egiten dute nolabait aretoetan, erakusketak dirauen bitartean, erregistro, objektu edo hondarren bidez. Horrela, proposamen batzuen eta besteen arteko elkarrizketak sortzen dira. Irailaren 27tik 29rako asteburuan, jardueran parte hartzen duten bederatzi artistek beren aurkezpenak egingo dituzte, bai erakusketa-aretoan, bai Esther Ferrerren *Números primos* dagoen lekuan, bai beste leku batzuetan.

Proiektu honen lehen edizioan, 2023ko ekaina eta uztaila bitartean — Itziar Okariz artistak eta Catalina Lozano Artium Museoko komisario buruak komisariatua —, *Lotura mekanikoak*, komisarioen hitzetan, «museoaren espazioa eta bertan eraikitzen diren harremanak pentsatzeko nahitik [sortu zen] bertan bizi diren gorputzetatik abiatuta, eraikinaren barnealdearen eta kanpoaldearen artean porositate uneak sortzen saiatuz, artista eta kolektibo batzuen praktiken bidez».

Bigarren edizio honetan, performancearen eta erakusketaren arteko esparruetan aurkitzen diren praktiken aniztasuna eta aberastasuna ikertzen jarraitu nahi dugu museotik, tresna gisa hitzarekin, gorputzarekin, artxiboekin edo museoarekin berarekin lan egiten duten artistekin. Era askotako lanak egiten dituzten askotariko testuinguruetako artistak gonbidatu ditugu, performanceari toki partikularretatik heltzen dion panorama bat erakusteko.

Horrelako proiektu batek, pertsona askok legitimotasun emailletzat jotzen duten espazio batetik planteaturik, artelanaren muga tradizionalak eta espazio- eta denbora-definizioak zalantzan jartzera gonbidatzen gaitu. Era berean, praktika horiek museoan sartzen direnean nola aurkezten, dokumentatzen edo erakusten diren planteatzera garamatza. Peggy Phelanek *Unmarked: The Politics of Performance* liburuan dio: «Performancea orainaldian bakarrik existitzen da. Performancea ezin da gorde, erregistratu, dokumentatu [...], behin hori eginez gero, performancea ez den beste zerba it bihurtzen da».

Mende honetako lehen hamarkadaren amaieratik, gero eta ohikoagoak dira erakusketa-aretoetan pieza iragankorrak sartzen diren proiektuak, beste espazio batzuetara baztertu beharrean, eta objektu materialen erakusketa tradizionalei ematen zaien garrantzi bera ematen zaie. Hainbat faktorek lagundu dute horretan, esate baterako proposamenak kutxa beltzetik kubo zurira eramateak, komunitate artistikoari eta publikoari pizgarriak eskaintzeko beharrak, eta museoek formatu berriak esperimentatzeko duten interesean eragina izan duten beste kontu batzuek, adibidez *Lotura mekanikoak* proposamenean aurkezten ditugunak.

Iñaki Martínez Antelo

Komisarioa

Esta es la segunda edición de *Lazos mecánicos* un proyecto dedicados a las prácticas performativas, iniciado en 2023 por el Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa. *Lazos mecánicos* es una exposición y es también un ciclo de performances, algunas de ellas efímeras y otras que perviven de alguna manera a través de registros, objetos o restos que permanecen en salas durante el periodo que dura la muestra, fomentando así diálogos entre las diferentes propuestas. Durante el fin de semana inaugural, del 27 al 29 de septiembre, tendrán lugar las presentaciones de las nueve artistas participantes, tanto en el espacio expositivo como sobre *Números primos* de Esther Ferrer y en otras localizaciones.

En la edición inicial de este proyecto, entre junio y julio de 2023, comisariada por la artista Itziar Okariz y por Catalina Lozano, comisaria jefe de Artium Museoa, *Lazos mecánicos* surgía, en palabras de las comisarias, «del deseo de pensar el espacio del museo y las relaciones que se construyen en él a partir de los cuerpos que lo habitan, intentando crear momentos de porosidad entre el interior y el exterior del edificio a través de las prácticas diversas de una serie de artistas y colectivos».

En esta segunda edición pretendemos seguir investigando desde el museo sobre la variedad y riqueza de prácticas que se encuentran en ámbitos intermedios entre la performance y la exposición, con artistas que trabajan con la palabra, el cuerpo, los archivos, o con el propio museo como herramienta. Hemos invitado a artistas de diferentes contextos con trabajos muy diversos, para mostrar así un panorama que aborda lo performático desde lugares particulares.

Un proyecto como este, planteado desde un espacio, el museo, que muchas personas consideran de legitimación, invita a cuestionarnos los límites tradicionales de la obra de arte y sus definiciones espaciales y temporales. También nos lleva a plantearnos cómo se presentan, se documentan o se exhiben estas prácticas cuando entran en el museo. Como escribe Peggy Phelan en *Unmarked: The Politics of Performance*: «La performance solo existe en el presente. La performance no puede ser guardada, registrada, documentada [...], una vez que lo hace, se convierte en algo distinto a la performance».

Desde finales de la primera década de este siglo, cada vez son más frecuentes los proyectos en los que piezas efímeras entran en las salas de exposición, en vez de ser relegadas a otros espacios, y se les da la misma importancia que a muestras más o menos tradicionales de objetos materiales. A ello han contribuido numerosos factores, como el desplazamiento de propuestas de la caja negra al cubo blanco, la necesidad de ofrecer estímulos a la comunidad artística y a los públicos, y otras cuestiones que han influido en el interés de los museos por experimentar nuevos formatos como los que presentamos en *Lazos mecánicos*.

Iñaki Martínez Antelo

Comisario

This is the second edition of *Mechanical Bonds*, a project dedicated to performative practices that was launched in 2023 by Artium Museoa, Museum of Contemporary Art of the Basque Country. *Mechanical Bonds* is both an exhibition and series of performances, some of them ephemeral and others that will survive in some way through records, objects or remnants that will continue to exist in the spaces for the duration of the exhibition, thereby encouraging dialogues between the different proposals. The presentations by the nine participating artists will take place during the opening weekend, from 27 to 29 September, both in the exhibition space and around Esther Ferrer's *Números primos* (Prime Numbers), as well as in other locations.

The first edition of the project took place between June and July 2023 and was curated by the artist Itziar Okariz and Catalina Lozano, chief curator of Artium Museoa. In the words of the curators, *Mechanical Bonds* stemmed "from the desire to consider the museum space and the relationships built within it based on the bodies that inhabit it, attempting to create moments of porosity between the interior and exterior of the building through the varied practices of a number of artists and collectives."

The second edition aims to continue this museum-based exploration of the diversity and richness of practices that can be found in intermediate fields between performance and exhibition, featuring artists who work with words, the body, archives or the museum per se as a tool. We have invited artists from a variety of contexts with truly different works to present a panorama that addresses the performative from specific places.

A project like this, conceived from a space like the museum, which many people consider to be a space of legitimation, invites us to question the traditional boundaries of the work of art and its spatial and temporal definitions. It also leads us to consider how these practices are presented, documented or displayed when they enter the museum. As Peggy Phelan writes in *Unmarked: The Politics of Performance*: “Performance’s only life is in the present. Performance cannot be saved, recorded, documented [...] once it does so, it becomes something other than performance.”

Ever since the end of the first decade of this century, projects in which ephemeral works enter exhibition halls, rather than being relegated to other spaces, have become increasingly common, and they are given the same importance as more or less traditional exhibitions of material objects. Many factors have contributed to this, such as the shift of proposals from the black box to the white cube, the need to offer stimuli to the artistic community and the public, and other issues that have influenced the interest of museums in experimenting with new formats such as those that we are presenting in *Mechanical Bonds*.

Iñaki Martínez Antelo

Curator

VALERIA MACULAN

Cuerpo Sonoro (Ensamble), 2024



Los Parlantes, 2024. Argazkia / Foto / Photo: Silvia Paredes

Cuerpo Sonoro (Ensamble)-ren tankerako ekintzen bidez, Valeria Maculanek tentsioak eta alteritatearen pertzepzioa arakutzen ditu. Gorputzak abiapuntu gisa duen garrantzia nabarmentzen du bere ikuspegitik, eta publikoa tartean sartzen du. Piezaren parte diren eskulturak ekintza-sortzaile gisa aurkezten dira, eraldaketa fisikoen eta testuinguruaren aldaketan bidez beren helburuari etengabe erronka joz, portaera-kodeak azaleratuz eta bulkada pertsonalak piztuz.

Bere proiektu berrietan espazio eszenikoan gorputza antolatzeko eta irudikatze moduak ikertzen ditu, eta espazio horretan gizakienak ez diren gorputzak ere sartzen dira. Ikuspegi hori xx. mendeko abangoardiako antzerkiaren ideietan oinarritzen da, eta filosofia eta teoria feministetan, espazioa edukiontzi pasibo hutsa ez dela, baizik eta funtsezko eginkizuna duela erakusteko.

Valeria Maculan (Buenos Aires, 1968), Madril eta Buenos Aires artean bizi den artista bat da. Bere lanean esparru zabalak lantzen ditu barne, hala nola espazio publikoetan aktiboki parte hartzea, eskultura eta mugimendun artea, eta gaur egun instalazioak eta performanceak egiten ditu batez ere. Abangoardietan oinarrituta, bere praktikan forma artistiko batzuen eta besteen arteko mugak ezabatzen ditu, bitartekoak oso modu pertsonalean batuz. Arteak gure pertzepzioa eta sentsibilitatea zabaltzeko duen ahalmenean sinesten du Maculanek, gure eraikuntza kulturalak desafiitzen eta birdefinitzen dituen adierazpen poetiko gisa ulerturik. Bere ikerketaren bidez, artistak zalantzan jartzen ditu gure gizarte-egituretan errotutako kontzeptuak, hala nola desberdintasuna, errepikapena, batasuna, aurkakotasuna, indibidualitatea, kolektibotasuna, gizatiarra dena eta ez dena, eta dikotomia horietako arrakalak aztertzen ditu.

A través de acciones como **Cuerpo Sonoro (Ensamble)**, Valeria Maculan explora las tensiones y percepción de la alteridad. Su enfoque destaca la importancia del cuerpo como punto de partida, e involucra al público en la obra. Las esculturas que forman parte de la pieza se presentan como generadoras de acción, desafiando constantemente su propósito a través de transformaciones físicas y contextuales, revelando códigos de comportamiento y despertando impulsos personales. Sus proyectos más recientes investigan formas de organizar y representar el cuerpo en el espacio escénico, en el que incluye también cuerpos no humanos. Este enfoque se basa en ideas del teatro de vanguardia del siglo xx, de la filosofía y teorías feministas, con el objetivo de mostrar que el espacio no es un recipiente pasivo, sino que tiene una función primordial.

Valeria Maculan (Buenos Aires, 1968), es una artista que vive entre Madrid y Buenos Aires. Su trabajo abarca desde la participación activa en espacios públicos hasta la escultura y el arte en movimiento, y se centra actualmente en instalaciones y performances. Inspirada en las vanguardias, su práctica borra las fronteras entre diferentes formas artísticas, fusionando medios de una manera muy personal. Maculan cree en el poder del arte para ampliar nuestra percepción y sensibilidad, concebido como una expresión poética que desafía y redefine nuestras construcciones culturales. A través de su investigación, la artista cuestiona conceptos arraigados en nuestras estructuras sociales como la diferencia, la repetición, la unión, la oposición, lo individual, lo colectivo, lo humano y lo no humano, y explora las grietas en estas dicotomías.

Through actions such as ***Cuerpo Sonoro (Ensamble)*** (Sound Body [Assembly]), Valeria Maculan explores the tensions and perceptions of otherness. Her approach underlines the importance of the body as a point of departure and involves the audience in the work. The sculptures forming part of the work are presented as generators of action, constantly challenging their purpose through physical and contextual transformations, revealing codes of behaviour and awakening personal impulses. Her most recent projects examine ways of organising and representing the body in stage space, including non-human bodies. This approach is based on ideas from 20th century avant-garde theatre, philosophy and feminist theory, with the aim of showing that space is not a passive container, but rather has a primordial function.

Valeria Maculan (Buenos Aires, 1968) is an artist who divides her time between Madrid and Buenos Aires. Her work ranges from active participation in public spaces to sculpture and moving art, and she is currently focusing on installations and performances. Inspired by the avant-garde, her practice blurs the boundaries between various art forms by fusing media in an extremely personal manner. Maculan believes in the power of art to expand our perceptions and sensibilities, conceived as a poetic expression that challenges and redefines our cultural constructs. The artist uses her research to question concepts rooted in our social structures, such as difference, repetition, union, opposition, the individual, the collective, the human and the non-human, as she explores the cracks in these dichotomies.

FEDERICO VLADIMIR & PABLO LILIENFELD

Mónica - Episodio 5: Bajo el sol cegador, 2024



Mónicaren bosgarren atala da **Bajo el sol cegador**, artisten amen historian —biak Mónica izenekoak— barneratzen den telenobela espekulatiboa. Mónica biak Argentinan jaio ziren 50eko hamarkadan. Gerrako errefuxiatuen alabak ziren, eta biek emigratu zuten Espainiara. Mónica Lilienfeld margolaria zen eta gazterik hil zen, 1986an. Mónica Pezdirc-ek bizitza osoan posatu du biluzik senarrak egin dizkion argazki erotikoetan. Amek sortutako margoak eta argazkiak dira haien genealogia diasporikoak elkarlotzen dituen eta irudien performatibitatea aztertzen duen lan honen abiapuntua. *Mónica*ren atal bakoitzak formatu desberdina du, testuinguruaren arabera. *Bajo el sol cegador* bisita gidatu performatibo bat izango da, bien amen jatorrizko lanetan zehar.

Federico Vladimir (Buenos Aires, 1983) eta **Pablo Lilienfeld** (Madril, 1981) 2014. urteaz geroztik daude elkarrekin. Artisten hitzetan: «gure lana gure harremanarekin txirikordatuz joan da, eta intimitatetik abiatzen gara gure kide izateko eta geure burua kontatzeko modu hegemonikoak zalantzan jartzen dituzten kolektibitatearen irudikapenak aztertzeko. Fikzio espekulatiboa “mundua egiteko” tresna gisa erabiliz, etxekoa, bazterrekoa, ludikoa eta desioa elkartzen diren espazioak sortzen ditugu. Entitate plastiko bat balitz bezala gustatzen zaigu pentsatzea biok osatzen dugun *queer* familia / kolektibo artistikoan: uzkurtu eta hedatu egiten da senideak, laguntzaileak, lagunak, maitaleak, birusak, mamuak eta beste laguntzaile batzuk barne hartzeko. Gizarte barruko narratibei buruzko ikerketa honetan hainbat praktikataru hurbildu gara, hala nola igeriketa sinkronizatura edo rol jokoetara».

Mónica - Episodio 1: Déjenla sola, 2023. Fundación Eugenio Granell, Santiago de Compostela.
Argazkia / Foto / Photo: Carmen Verdú

Bajo el sol cegador es el quinto episodio de ***Mónica***, una telenovela especulativa que se adentra en la historia de las madres de los artistas, ambas llamadas Mónica. Las dos Mónicas nacieron en Argentina en los años 50, hijas de refugiados de guerra, y las dos emigraron a España. Mónica Lilienfeld era pintora y murió muy joven, en 1986. Mónica Pezdirc ha posado desnuda durante toda su vida en las fotografías eróticas que le ha hecho su marido. Las pinturas y fotografías creadas por sus madres son el punto de partida de este trabajo que entrelaza sus genealogías diaspóricas e indaga en la performatividad de las imágenes. Cada episodio de *Mónica* se presenta en un formato diferente, según el contexto: *Bajo el sol cegador* será una visita guiada performativa a través de las obras originales de sus madres.

Federico Vladimir (Buenos Aires, 1983) y **Pablo Llilienfeld** (Madrid, 1981) llevan juntos desde 2014. En palabras de los artistas «nuestro trabajo se ha ido entrelazando con nuestra relación, partiendo de la intimidad para explorar representaciones de la colectividad que cuestionan las formas hegemónicas de pertenecer y de narrarnos a nosotras mismas. Utilizando la ficción especulativa como herramienta de “hacer mundo”, creamos espacios en los que confluye lo doméstico, lo marginal, lo lúdico y el deseo. Nos gusta pensar en la familia / colectivo artístico *queer* que ambos conformamos como una entidad plástica: se contrae y se expande para incluir a parientes, colaboradores, amigos, amantes, virus, fantasmas y otros acompañantes. A lo largo de esta investigación sobre narrativas transindividuales nos hemos acercado a prácticas tan diversas como la natación sincronizada o los juegos de rol».

Bajo el sol cegador (Under the Blinding Sun) is the fifth episode of ***Mónica***, a speculative soap opera that explores the story of the artists' mothers, both named Mónica. Both Mónicas were born in Argentina in the 1950s, the daughters of war refugees, and both emigrated to Spain. Mónica Lilienfeld was a painter who died very young, in 1986. Mónica Pezdirc posed nude throughout her life in erotic photographs taken by her husband. The paintings and photographs created by their mothers form the basis of this work, which interweaves their diasporic genealogies and explores the performativity of the images. Each episode of *Mónica* is presented in a different format depending on the context: *Bajo el sol cegador* will be a performative guided tour through the original works of their mothers.

Federico Vladimir (Buenos Aires, 1983) and **Pablo Lilienfeld** (Madrid, 1981) have been working together since 2014. In the artists' own words: "Our work has become interwoven with our relationship, starting from intimacy to explore representations of collectivity that question the hegemonic ways of narrating ourselves and to narrate ourselves. Through speculative fiction as a tool for 'making the world', we try to sustain worlds in which the domestic, marginality, recreation and desire converge. We like to think of the queer artistic family/collective that we both form as a plastic entity: it contracts and expands to include relatives, collaborators, friends, lovers, viruses, ghosts and other companions. In our research on transindividual narratives, we have approached practices as diverse as synchronised swimming and role-playing games."

AINARA LEGARDON

Pausar pulsa, 2024

Pausar pulsa soinu-instalazio baten bilakaera performatiboa da. Ahots-interprete batentzako eta sei bozgorailurentzako obra. Soinu-esperientzia bat, inoiz modu berean errepika ez dadin diseinatua; hitz gutxi batzuk bereiz daitezten, haien hondakinak beti modu desberdinean urtu daitezten eta esanahi berriak har ditzaten. Ahots bakar bat entzuteko eta behatzeko gonbidapena, aldi berean aipatzen eta agertzen den ahots bat.

Ainara LeGardon (Bilbo, 1976) 1991. urteaz geroztik lanean ari den musikaria eta artista da. Lan oparoa garatu du *rockaren*, inprobisazioaren eta musika esperimentalaren esparruan, bai bakarka, bai hainbat talde artistikoren eta proiektu eszenikoren parte izanik. Europako eta Estatu Batuetako agertokietan aurkeztu du bere musika eta garatu ditu soinu-piezak eta ekintza performatiboak. Berak bakarrik kudeatu du gainera bere ibilbidea 2003. urteaz geroztik. Haren sorkuntzak entzuteko, sortzeko, bihurritzeko eta suntsitzeko prozesuak berrinterpretatzeko eta islatzeko lanak dira, dela musika, poema eta soinu-ekintza gisa, dela esku-hartze eszeniko gisa. Jarduera artistikoarekin batera, ikerketa- eta dibulgazio-lan handia egiten du kultura-kudeaketaren eta jabetza intelektualaren arloan.

Xabier Erkizia: laguntza artistikoa, grabazioa eta soinu-edizioa
Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntzarekin egindako lana

Ainara LeGardon. Argazkia / Foto / Photo: Rafa Rodrigo



Pausar pulsa es la deriva performativa de una instalación sonora. Es una obra para una intérprete vocal y seis altavoces. Una experiencia sonora diseñada para que no pueda repetirse nunca de la misma forma; para que unas pocas palabras se desmembran, sus escombros se fundan siempre de maneras distintas y cobren nuevos significados. Una invitación a escuchar y observar una sola voz, invocada y presente al mismo tiempo.

Ainara LeGardon (Bilbao, 1976) es música y artista en activo desde 1991. Desarrolla un prolífico trabajo en el campo del *rock*, la improvisación y la música experimental, tanto en solitario como formando parte de diferentes colectivos artísticos y proyectos escénicos. Ha presentado su música y desarrollado piezas sonoras y acciones performativas en escenarios de Europa y Estados Unidos, y ha autogestionado su trayectoria desde 2003. Sus obras suponen un trabajo de reinterpretación y plasmación de sus procesos de escucha, creación, retorcimiento y destrucción, ya sea en forma de música, poemas y acciones sonoras o intervenciones escénicas. De forma paralela a su actividad artística realiza una extensa labor como investigadora y divulgadora en el campo de la gestión cultural y la propiedad intelectual.

Xabier Erkizia: acompañamiento artístico, grabación y edición sonora
Obra realizada con ayuda del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco Eusko

Pausar pulsa (Pause Press) is the performative drift of a sound installation. It is a work for one vocal performer and six loudspeakers. A sound experience designed so that it can never be repeated in the same way, so that a few words fall apart, their debris always reassembling in a variety of ways to take on new meanings. An invitation to listen and observe a single voice, invoked and present at the same time.

Ainara LeGardon (Bilbao, 1976) has been an active musician and artist since 1991. She has developed a prolific body of work in the fields of rock, improvisation and experimental music, both as a solo artist and as part of various artistic collectives and stage projects. She has presented her music and developed sound pieces and performative actions on stages in Europe and the United States, and she has been self-managing her career since 2003. Her works involve reinterpreting and shaping her processes of listening, creation, twisting and destruction, whether in the form of music, poems and sound actions or stage interventions. In parallel to her artistic activity, she carries out extensive work as a researcher and disseminator in the field of cultural management and intellectual property.

Xabier Erkizia: artistic accompaniment, recording and sound editing
Created with the help of Basque Government's Department of Culture and Linguistic Policy



In between, 2022. Porosidades UCLM. Iglesia de San Andrés, Cuenca

ITSASO IRIBARREN & GERMÁN DE LA RIVA

In between, 2022-2024

In between ekintza bat da, non Itsaso Iribarrenek eta Germán de la Rivak denboraren poderioz aldatuz doazen eskultura batzuk partekatzen dituzten. Pieza eraldatuz doan formatu batean gauzatzen da: instalazio gisa hasten da eta talde-pieza batera bideratzen da, partaidetza-dinamika ludiko batekin. Mutazioa, bidea, praxia edo muga dira kontenplazio eta jolas proposamen honen gainetik hegan dabiltzan kontzeptuak.

Itsaso Iribarren (Iruñea, 1981) eta **Germán de la Riva** (Cumaná, Venezuela, 1977) artistak eta ikertzaileak dira. 2006. urteaz geroztik, haien lan-eremuak sorkuntza artistikoa eta haren inguruan sortzen diren ikerketa-prozesuak biltzen ditu. Haien lanak mugimenduan dagoen gorputzaren eta hura osatzen duten sistemen ingurukoak dira, eta beste gorputz batzuekiko, teknologiarekiko eta bizi diren hiri-inguruneekiko harremanetan sakontzen du. Ikusizko arteen eta arte performatikoen artean hizkuntza hibridoak sortzea ahalbidetuko dieten metodologiak eta tresnak bilatzen dituzte teknika somatikoetan eta inprobisazio-dantzan. Gaur egun, Itsaso irakaslea da eta German ikertzailea Cuencako Arte Ederren Fakultatean. Erakunde horretan, performerraren gorputzak aktibatzen dituen eskultura-pieza batzuk garatu dituzte azken urteotan. Ekintza horietan, jolasak eta trebetasunak entzumena eta autopertzepzioa areagotzen dute.

In between es una acción en la que Itsaso Iribarren y Germán de la Riva comparten una serie de esculturas que evolucionan según pasa el tiempo. La pieza se materializa en un formato en transformación: se inicia como una instalación y deriva a una pieza grupal, con una dinámica lúdica de participación. Mutación, camino, praxis o límite son conceptos que sobrevuelan esta propuesta de contemplación y juego.

Itsaso Iribarren (Pamplona, 1981) y **Germán de la Riva** (Cumaná, Venezuela, 1977) son artistas e investigadores. Desde el año 2006, su campo de trabajo abarca tanto la creación artística como los procesos de investigación que en ella se generan. Sus obras giran en torno al cuerpo en movimiento y a los sistemas que lo componen, y ahonda en las relaciones con otros cuerpos, la tecnología y los entornos urbanos en los que habitan. Buscan en las técnicas somáticas y en la improvisación en danza metodologías y herramientas que les permitan generar lenguajes híbridos entre las artes visuales y performáticas. Actualmente, Itsaso es profesora y Germán investigador en la Facultad de Bellas Artes de Cuenca. En esta institución, han desarrollado durante los últimos años una serie de piezas escultóricas que son activadas por el cuerpo del performer. Son acciones en las que el juego y la habilidad producen un aumento de la escucha y la autopercepción.

In Between is an action in which Itsaso Iribarren and Germán de la Riva share a number of sculptures that evolve as time passes. The piece materialises as part of a transformative format, beginning as an installation to become a group work with a playful participatory dynamic. Mutation, path, praxis and limit are concepts that hover above this proposal for contemplation and play.

Itsaso Iribarren (Pamplona, 1981) and **Germán de la Riva** (Cumaná, Venezuela, 1977) are artists and researchers who have been working together since 2006 in the field of artistic creation and the research processes arising from it. Their work revolves around the body in motion and the systems that compose it, exploring relationships with other bodies, technology and the urban environments in which they live. They seek somatic techniques and improvisation in dance methodologies and tools that enable them to generate hybrid languages between the visual and performing arts. Itsaso is currently a lecturer and Germán a researcher at the Faculty of Fine Arts in Cuenca. Over the past few years at this institution, they have developed a series of sculptural pieces that are activated by the performer's body. These are actions in which play and skill lead to an increase in listening and self-awareness.

MARTA FERNÁNDEZ CALVO

Una vajilla, una premonición, 2024



Casas de Comidas Carabanchel, 2023. Argazkia / Foto / Photo: Natalia Pilo-Pais

